

Euskal gizartea gizarte aniztasun bezala

(Basque society as a plural society)

Ripalda, Joxemari

UNED

Fac. Filosofía

Senda del Rey, s/n

28040 Madrid

Leerro hauek ahozko gidoi luze baten atal bat dira. Lanaren gaia, besteak beste: gizarte mugimenduak bakarrik ari izanez gero, zein zaila den bere helburuak lortzea. Aniztasuna eta berezitasuna dira mugimenduen indarra. Politika egiteko beste era baten sustaiak dira eta ez ditugu egungo politikaren ordezkari gisa hartu behar. Iraultzailea, gaur egun, ez da "zerbaiten aurka" borrokatzen dena, baizik eta ezarririko hierarkizazioaren kanpotik "zerbait" erakitzen duena.

Giltza-Hitzak: Aniztasuna. Orokortasuna. Gizarte mugimenduak. Alternatiboa. Berezitasuna. Berrikuntza.

Estas líneas forman parte de un guión oral extenso que recoge, entre otras cuestiones, la dificultad que tienen los movimientos sociales en conseguir objetivos por ellos solos. La fuerza de sus principios está en su pluralismo y particularidad. Son la raíz de otra forma de hacer política y no deben ser considerados como los sustitutos de la actual política. El revolucionario hoy no es el que "lucha contra" sino el que "crea algo" desde fuera de la jerarquización establecida.

Palabras Clave: Pluralismo. Generalidad. Movimientos sociales. Alternativo. Particularismo. Innovación.

Ces lignes font partie d'un vaste plan oral qui comprend, entre autres questions, la difficulté que rencontrent les mouvements sociaux s'ils prétendent atteindre des objectifs par eux-mêmes. La force de leurs principes réside dans leur pluralisme et leur particularité. Ce pluralisme et cette particularité sont la racine d'une autre façon de faire de la politique et ne doivent pas être considérés comme les substituts de la politique actuelle. Le révolutionnaire aujourd'hui n'est pas celui qui "lutte contre", mais celui qui "créé quelque chose" hors de la hiérarchie établie.

Mots Clés: Pluralisme. Généralité. Mouvements sociaux. Alternatif. Particularisme. Innovation.

1. Printzipioz, mugimendu zibilek gizarte barruan daukate bere lekua eta gizartearen mailako arazoez arduratzen dira.

2. Beste aldetik estatuari gizartearen iritzia, egoera eta beharrak jakinarazten eta igortzen dizkiote mugimendu zibilek.

3. Estatuak bakarrik dauka *orokortasunaren* legitimitatea. Baina gizartean mugitzen diren interes *partikularren* boteretsuenek estatuaren funtzionamendua erabakitzen dutenez gero, mugimendu zibilek partez interes ahulagoak eta baztertuagoak ordezkatzan, partez estatuaren kontra interes orokorrak -adibidez, ekologikoak- defendatzen dituzte.

Honaino teoria edo, hobeto, ideologia ofiziala, zeren eta:

4. Egungo estatuaren *orokortasuna* antolaketa burokratiko/ juridikoan datza; Francoren estatua ere zuzenbidekoa zen, behintzat azken urteetan. Gainera, Arrown teoremaren arabera, estatu liberaletan ekonomiatik hartutako eredu individualistak ezin ditu erabaki kolektiboak oinarritu. Aitzitik, estatu liberalean erabakiak hierarkikoki hartzen dira eta, nahitaez, politikoak profesionalizatuta eta parlamentarismoa oligarkizatuta daude.

5. Estatuaren mamia interes-sareetan datza. Printzipioz sare hauek desberdintasun soziala islatzen eta eragiten dute; dena dela, estatuak gizarte osoa bame hartu ere egiten du nolabait. Izan ere, "mendebaldeko" gizarteetan estatuarekiko egokitasuna ez dator printzipiozko akordioetatik, baizik eta nolabait akordio isil batetik. Gizarte garatuetan %ko 1ek baino gutxiagok "ahalmen askatzailea" omen dauka (Riechmann) eta gazteek gero eta gehiago paso egiten dute politikatik. Bakarrik jendeak baztertze politikoa pairatzen duenean -horrela jadanik Hirschmann duela hogeitamar urte- hedatzen da gizartean konpromezu politikoa.

6. Egoera honetan sortu ziren hirurogeietan "gizarte mugimenduak" direlakoak: feminismoa, ekologismoa, pakearen aldekoa, eta estatu liberalaren barruan sortutako nazionalismoak. Gero, biga-

ren boladan, okupak, irrti libreak, intsumisioa eta abar: Touraine eta beste askok demokraziaren birfundazioa espero zuten orduan.

7. Asanbleismoa, deszentralisazioa eta militantzia plurala ziren hasieratik giza mugimenduen ezaugarriak. Estatuak, batez ere hauteskunderetan, beti etorkizun hobe bat agintzen du, elizak beste munduan bizia; komunismoak ere amaigabeko erdiko faseak aurreikusi zituen. Denbora hauen kontrolak hierarkia politikoa oinarritu zuen. Mugimenduek, berriz, bere helburuak orain eta hemen lortu nahi dituzte: okupek etxeak hartzen dituzte, intsumisioek armadari boikota egiten diote beren gorputzekin, objetore fiskalek ez dute ordaintzen, nazionalistek ez dituzte estatuaren sinboloak onartzen.

8. Gaur egun "hirugarren eremuaz" hitz egiten da, hau da, boluntariadua, self help antolakuntzak, ONGak. Eszeptiko samarra naiz kasu honetan. Ezaguna da bere ahultasuna estatuaren, ekonomiaren eta elizaren aurrean. Batez ere, mugimendu sozialek ere denbora kontrolatzaileak eta doktrina gordeztaileak beren barruan daukate; funtsean estatuaren egitura errepika dezakete.

9. Iraultzailea ez da kontra egiten duena, baizik eta hierarkiatik kanpo zerbait sortzen duena. Berez, gizartearen zati txikiak eta interes anitzak nahiz sakabanatuak adierazten dituztenez mugimendu sozialek, indarra gizartea bereganatzeko eta instituzioekin negoziatzeko ahalmenean daukate. Sare sozialak indartsuak badira eta estatua gizarteak mugatua sentitzen bada, mugimendu sozialak zuzenketaren eta garapenaren baliabideak bezala onartuko dira, nahiz eta sarritan estatuarekin tentsioak sortarazi. Behintzat kasu honetan Espainia ez dago lehenengo munduan.

10. "Transizioa" gizarte mugimenduek partez behartu bazuten ere, politikoei egin zuten guztiz. Gizarte mugimenduek bakarrik nekez lor dezakete gehiago. Beren ezaugarriak, behintzat hasieran, berezkotasuna eta aniztasuna dira. Beste politika baten oinariak dira, ez alderantziz, ezta politikaren ordezkokoak ere (Konstituzioak printzipio zibiletan eta ez instituzioetan oinarritzen dira).